



BER BERA

ERRI koškorretako sendakiñak izaten dute naikua lan, mendiyen gora bera, gau ta egun baserri urrutiyetara juan biar, eta alare askotan beren bizkar naikua far egiten dute.

Musian ari zan erri oyetako sendakin bat iru lagunekin, ta ordago esatiakin bat deitu ziyon ardoteği-ko nagusiyak esanaz:

—Or dago Ezkurrua-ko semia, zera Atristain-go andre Inaši aur-egiteko dagola ta juateko lenbailen.

—Ausen da eskutik ordago eramatia, erantzun zuben sendakiñak eta lagarik musa, lagunak eta ardoteğiya, jarri zan Atristain-go bidian.

Bi orduko bidia bazan gero araño. Luzia bai, baña luzia baño charragua-re bai.

Andre Inaši, emakume gazte, eder, liraña, alargun batekin eskondu berriya zegon. Senarra baño aitonen ichura geyago zuben alargunak. Makiñabat aldiz esaten zuten inguruko mutil gaztiak: Agure zarpail orrek orlako mirabe ederra eraman biar. Chanponak zituben ordia aguriak, eta baserriyan, erri aundi ta chikiyetan bezela, chanponak dira emakumerik mardul eta sasoikuenak achitzen dituztenak.

Orra bada nola agure ura, inguruan Pachi *iškiñosua* deitzen ziotena, andre lirain baten jabe zan. Buruban ille bat etzeukan, abuan ortzen alerik ere ez, baña patrikeran chanponak ugari bai, ta ez da berterik biar gai ontan.

Sendakiña izardi patzetan an zijoa mendiyen gora ler egiteko zoriyan. Ezkurrua-ko semiak lagundu ziyon bere eche-ko atariaño ta andik aurrera bakarrik juan zan sendakiña.

Noiz bait ere irichi zan Atristain-go nigurura ta mandua añako sakur aundi bat asi zan zaunkaka, ta jan biar zubela zirudiyela alde guztietara saltaka gelditzen etzan.

Ez atzera ta ez aurrera gelditu zan sendakiña zer egiñ etzekiyela, Pachi *iskĩnosua* atietan agertu zan arte:

—Aurrera, aurrera, oju egin ziyon Pachi-k.

—¿Kosk egiten aldu?

—Ez bada jakiñ.

—¿Ez dakizula?

—Ez bada. Baño aurrera, aurrera. Atzo erosi nuben ta jakin nai nuke kosk egiten duben edo ez.

—¿Neri kosk egitia nai aldezu?

—Iñori egite ezkeru, bedorri egitia obia da. Sendatzeko iñoren biarrik ez.

Ikusirik agure arrekin gauza zuzenik ezin atera zala, artu zuben bere esku makil mutur zorrotza, alde egin zuben chakurrak chilyoka, ta sartu zan baserriyan lepozamarreko bat Pachi *iskĩnosua-ri* emanaz.

Denboraz irichi zan. Bere biarrian arkitzen ziran basarriyan, ta eskutik eldubaz bultzaka an sartu azi zuten sendakiña andre Inaši-ren gelan:

—¿Orain alda nere biarra?, ziyon ojuka sendakiñak. Neri orain bultzatzen nazuten bezela obe zenuten chakurrari bultza egin bazenioten neregana zaunkaka jua danian. Egondu naiz errira biurtzeko bategere echi ontan sartu gabe.

—Barkatu jauna, barkatu.

—¿Barkatu e? Barkatu bai, baña penitentsiya ordaindu ta. Pachi-k ordainduko nazki danak.

Biyotza baño barrenago zeukan patzikeran min zorrotza sentitu zuben Pachiku *iskĩnosua-k* itz abek entzutiakin bat.

Laister aur berriyan karrašiyak entzun ziran ta baita-re chakurraren zaunkak; *karraši* bakoitzari zaunka batekin erantzuten bai ziyon.

Beriala aur chikia erakutzi zioten sendakiñak, esanaz:

—Ara. Aita ber bera da.

Eta erantzun zuben amak itz geldi, larriyakin:

—Bai: ez du ez ortzik eta ez illerik.

A. DARRA